



Iñaki Aldekoa:
«Aresti ez zen
baikorra, baina
eskema bat zuen»

'Munduaren neurria
(Arestiren ahots
biblikoaz)' argitaratu du
Alberdaniarekin → 33

politika

■ Rotako txaletak ez zituzten Aragonek eta Urralbururen emazteak ordaindu → 6

■ Fiskalak 32 urteko zigor eskaerari eutsi dio Ortega Lararen bahitzaileentzat → 7

■ HBk presoan auzian «maila aktibora» pasatzeko eskatu die EAJ, EA eta IUri → 8

gizartea

■ Labiaga ikastola sinadurak biltzen hasi da DBH lerroa legeztatzearen alde → 12

ekonomia

■ CCOOk eta UGTK 2000. urtean Espainia osorako hitzarmena sinatuko dute metal alorrean → 16

nazioartea

■ Jugoslavian militarki esku hartzeko bidea zabaldu du NATOk → 20

kirola

■ Dauphine Liberee Boardmanek irabazi du erlojupekoa, eta De las Cuevasek lider jarraitzen du → 25

kultura

■ Orson Wellesen 'Basque Country' ikusgai Baionako Euskal Zinemaren Astean → 29

AABek 83 tortura kasu bildu dituzte urtea hasi denetik, gehienak Guardia Zibilak eginak

Torturaren praktika erabat eragotziko lukeen lege proiektu bat hitzartzeko harremanak izan dituzte AABek alderdiekin

→ 5

Euskal selekzioak jokatzeko noiz hasiko zain, ilusioa berpiztu da

Eusko Legebiltzarrak Kirolaren Legea onartu zuen atzo, EAJ, HB, EA eta IUren botoekin

■ LEHENENGO harria baino ez da, baina euskal selekzioen aldeko ekimenak aurrerapauso handia eman du. Eusko Legebiltzarrak EAEko Kirolaren Legea onartu zuen atzo, EAJ, HB, EA eta IUren botoekin. Horren arabera, euskal selekzioek nazioartean jokatzeko lehen baldintza -hemengo legedian onartuak izatea- dagoeneko bete da. Abiapuntua baino ez da, baina legea onartu duten alderdietako eta Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeko ordezkariak aurrerapauso handia dela nabarmendu dute. «Itxaropena» agertu dute ESAITeko kideek, baina ukatu egin dute «egun historikoa» dela: «Euskal selekzioak nazioarteko lehiaketetan aritzen diren eguna izango da historikoa». → 23



Parlamentarioak eta ESAITeko kideak, euskal selekzioen aldeko elastikoa jantzita.

JOSEBA OLALDE



Alessandro Nestak bikain markatu zuen Ivan Zamorano partidu guztian. LUCA BRUNO

Italia 2 - 2 Txile

■ Pozik egoteko moduan dira italiarrak, ia galdua zuten partidua berdinduta Marcelo Salasek sartu zituen Txileren bi golak, eta Vierik eta Roberto Baggiok bana egin zuten Italiarentzat

Kamerun 1 - 1 Austria

■ Azken minutuan eragotzi zuen porrota Austriak, Polsterren gol bati esker Partidu kaskarrean Njankak Kamerun aurretik jarri zuen, jokaldi bikaina egin eta gol ikusgarria lortuz

→ gehigarri berezia